

Bertizko Jaurerria Natur Parkean energia garbi eta berriztagarri baten aldeko apustua egiten dugu:

## BASO-BIOMASA



2008. urtetik, hau bezalako baso-biomasako galdara batez Parkeko hainbat eraikinetako kalefakzio eta ur berorako behar den energia termikoa ekoizten dugu. Erregai gisa *pellet* direlakoak edo zurezko ezpalak erabiltzen dira



## BASO-BIOMASA

Baso-biomasa energia berriztagarria lortzeko iturria da, zura oinarri duena, eta honako alderdi garrantzitsu hauei lotuta dago: erregai fosilen mendekotasun energetikoari alternatibak bilatzea, Kyotoko Protokoloa betetzea, mendi-suteei aurrea hartzea, basoen egoera hobetzea, baita herrietako biztanleria eta enplegua mantentzea ere.

Zur edo baso-biomasa hau energia-iturri garbi bezala erabili izan da tradizionalki, baina azken urteotan modernizatu egin da merkatuan hainbat produktu berri agertu baitira: ezpalak edo *pelletak* –egur edo zerrautsaren hondakinetatik sortuak–, horiek guztiak tamaina txikikoak.



Basoko hondakinetatik etortzen diren zurezko ezpalak



Pellets

### ABANTAILAK

- Energia berriztagarria da, merkea, garbia eta, gainera, ingurumen arloan onura garrantzitsuak dakartzana.
- CO<sub>2</sub> balantzea zero da. Baso-masek bizirik irauten duten bitartean CO<sub>2</sub>-a xurgatzen dute eta biomasa bezala erabiltzen direnean beste erregai batzuek baino kopuru gutxiago igortzen dute atmosferara.
- Beste energia batzuetan baino erregai gutxiago xahutzen da. Aurrezpen hori %40-50 ingurukoa da, gaur egun erabiltzen diren beste erregai batzuekin alderatuta.

**Gaur egungo energien artean alternatiba ona da –gasolioa kasu–, ekologikoagoa, ekonomikoagoa eta garbiagoa baita.**



Parque Natural Señorío de Bertiz - Bertizko Jaurreria Natur Parkea  
Tel.: 948 59 24 21 - Fax: 948 59 24 22 - 31720 Oieregi (Navarra)  
E-mail: cinberti@cfnavarra.es - Web: www.parquedebertiz.es